

2006KO UZTAILAREN 20KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko uztailaren hogeian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe eta Gorka Lamy Insausti.

Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu. Azken honek bere ez etortzea aurrez jakinarazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- ARERIA ERAIKITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Areria eraikin sozio-kulturala eraikitzeke lanak, prozedura irekia eta lehiaketa publikoaren bidez esleitzeko kontratazio espedientearen prozedura nola dagoen ikusi ondoren.

Horretarako irekitako denboraldian honako 4 eskeintza hauek aurkeztu zirela:

- Antzibar eraikuntzak, S.A.
- Pedro Iparragirre, S.L.-Girolan, S.L.-Imoel, S.A.
- Etxea Instalaciones, S.A.-Miguel Imaz, S.A.
- FONORTE, EMPRESA CONSTRUCTORA, S.A.-IKENA 2001, S.L.

eta hauetatik guztiak onartu direla.

Guzti hau kontutan izanda, Kontratazio Mahaiak, baloratu diren proposamenetatik Udalarentzat eskeintzarik abantailatsuena izateagatik, esleipena Fonorte, Empresa Constructora, S.A. eta IKENA, S.L.k osatuko duten aldi baterako enpresa-elkarteari egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 85etik 89ra dihoazten artikulua ikusi ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Lizitazio egintza ontzat ematea.

Bigarrena.- Areria eraikin sozio-kulturala eraikitzeko lanak burutzeko lehiaketaren esleipena Fonorte, Empresa Constructora, S.A. eta IKENA 2001, S.L.k osatuko duten Aldi Baterako Enpresa-Elkarteari egitea, beraiek aurkeztutako eskeintza udalarentzat abantailatsuena izateagatik, BI MILIOI BOSTEHUN ETA BERROGEITA LAU MILA HIRUEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA euro eta HAMAHIRU zentimotan (2.544.371,13 €), %16ko B.E.Z. barne, lizitazio oinarriarekiko %10,50eko baja suposatzen duelarik.

Hirugarrena.- Esleitzailari akordio hau jakinarazten zaionetik 15 egun naturaletako epean behin betiko bermea eta baldintza pleguan adierazten den gainontzeko dokumentazioa jarri beharko duela adieraztea.

Laugarrena.- Dagokion administrazio kontratua izenpetua izan dadin Alkatea eta Idazkaria behar den zabaltasunez ahalmentzea.

III.- BAKE EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOAREN IZENDAPENA.-

Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu-Idazkaritzatik idatzia jaso da Bake Epailea izendatu zenetik lau urteko epea amaitzeaz dagoela eta Osoko Bilkurak Bake Epaile titular eta ordezkoko karguetarako aukeraketa egin dezan eskatuz.

Hau honela deialdi irekia egin da, herrian zehar hala nola Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak jarri eta baita ere prentsako herriko kronikan kargu hauetarako interesatuek beraien izena Udaletxean eman zezaten eskatuz.

Honen ondorioz lau herritar izan dira karguan interesatuta beraien izena eman dutenak.

Bere izena eman duten lau pertsona hauen xehetasun pertsonalak honako hauek dira:

Jesus Jabato Crespo.- Lazkaoko bizilaguna, Iturgaitzaga, 5 - 1. ezkerrean helbideratua, 28 urte dituen, zuzenbidean lizentziatua, N.A.N. zbkia.: 72.451.314-A. Tlfnoa: 943888426.

Ibon Lopetegui Aierbe.- Lazkaoko bizilaguna, Gurutze 2 - 5.Dn helbideratua, 34 urte dituen, soldatzailea, N.A.N. zbkia.: 35.772.197-K. Tlfnoa: 655741638.

Mikel Begiristain Aranzasti.- Lazkaoko bizilaguna, Areso, 2 - 1.En helbideratua, 53 urte dituen, Super BMko arduraduna, N.A.N. zbkia.: 10.916.712-R. Tlfnoa: 943885923.

Iker Imaz Beldarrain.- Lazkaoko bizilaguna, Antzalde 18An helbideratua, 21 urte dituen, ikaslea, N.A.N. zbkia.: 72.460.015-X. Tlfnoa: 943887209.

Alkateak esaten du izena eman dutenen eskariak aztertu ondoren, Bake Epaile titularretarako Jesus Jabato Crespo Jauna eta Ordezko Bake Epaile gisa Iker Imaz Beldarrain Jauna izendatzearen aldeko proposamena planteatzen dela. Gehitzen du Jesus Jabato Crespo Jauna orain arte ordezkoko bake epaile gisa aritu dena dela eta bere ustez eginki-

zun hori oso ondo bete duela eta Iker Imaz Beldarrain Jauna, bere eskarian agertzen ez bada ere, ingenieritza ikasketak egiten ari dela Goierriin.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere zazpi partaideen aldeko botuekin, Udal Osoa guztira hamahiru lagun direlarik, eta beraz gehiengo osoaren aldeko botuarekin, bake epaile titularrerako Jesus Jabato Crespo eta ordezkoko bake epailerako Iker Imaz Beldarrain Jauna aukeratzea erabakitzen du.

Bestalde eta Alkatearen proposamenez Udal Osoko Bilkurak, orain arte eta azken urte guzti hauetan Bake Epaile karguan aritu den Joxe Garmendia Aiestaran Jaunari egingako lanarengatik esker ona ematea erabakitzen du.

IV.- BENEDITARRAK LAZKAON 100 URTE EGITEN DITUZTELA ETA.-

Aita Beneditarrak Lazkaon 100 urte egiten dituztela eta, urte guzti hauetan eman duten zerbitzuarengatik eskerrak ematea eta egin duten lan guzti hori eskertuz oroigarri bat ematea planteatzen da. Oroigarri hori zer eta nola eman zehaztu egin beharko litzateke baina 100 urte hauen ospakizun gisa beraiek hainbat egintza antolatzen ari direla jakinik, oroigarri hori egintza horien barruan emango litzateke.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- MINUSBALITUENTZAT EGOKITUTAKO 9 PLAZAKO IBILGAILUAREKIN TAXI ZERBITZUA EMATEKO BAIMENA.-

Jarraian Goierri Berariazko Erregimen Guneari dagozkion bailarako udal guztietan zerbitzua emango lukeen minusbalituen garraiorako egokitutako 9 plazako taxi-busari baimena emateari buruz eztabaidatzen da.

Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako idatzian esaten denez, taxi-bus hau Arantzazu Ormazabal Ormazabal Andereak, N.A.N. 72.436.247-R, jarriko luke eta Ormazabal Anderera prest legoke ezaugarri horiek dituen ibilgailua erosteko Goierri Berariazko Erregimen Guneari dagozkion bailarako udal guztietan zerbitzua emateko aukerarik baldin badu behintzat.

Hori horrela, Lazkaon proposatzen den zerbitzu hori ematea ahalbideratuko lukeen baimena ematea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Arantzazu Ormazabal Ormazabal Andereari minusbalituentzat egokitutako eta bederatzi plazako ibilgailuarekin taxi-bus zerbitzua emateko baimena ematea erabakitzen du.

VI.- ESPETXEAN DAUDEN PERTSONEN AHAIDEEI GARRAIORAKO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA.-

Espetxeetan preso daudenen ahaideei, espetxeetara bisita egitera joateak dakartzan garraio-gastuei aurre egiteko dirulaguntzen ematea arautuko duen arautegia aurkeztu da bere onarpenerako.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

1.- Espetxeetan preso daudenen ahaideei, espetxeetara bisita egitera joateak dakartzan garraio-gastuei aurre egiteko, dirulaguntzen ematea arautuko duen arautegia, bere espedientearen aurkitzen dena, hasierako izaeraz onartzea.

2.- Espedientearen jendaurrean jartzea hogeita hamar egunetako epean, erreklamazio eta iradokizun ondorioetarako.

3.- Jendaurre erakustaldi denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betikoa joko litzateke, akordio espreso berri baten beharrik gabe.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.